

ESPAINIAKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA: IKERKETA PROIEKTUEN 2017KO DEIALDIA

Xedea:

Deialdiaren helburu da orientazio traslazonal argiko minbiziaren inguruko kalitatezko ikerketa proiektuetarako finantza laguntzak ematea. Proiektu horiek ikertzaile nagusi batek gainbegiratuta garatuko dira eta oso osorik Espainian burutuko dira.

Proiektuen ezaugarriak:

- Proiektuek orientazio traslazonala eduki beharko dute, oinarrizko ikerketako oinarri sendo batekin. (oinarrizko onkologia, onkologia traslazonala eta azterketa aurreklinikoak barne hartuko dituzten azterketak).
- Ikerketa talde desberdinek elkarlanean jarduteko aukera ematen da.
- Proiektuek 3 urte iraungo dute.
- 300.000 euro gordinoko diru kopurua emango da, hots, urtean 100.000 euro gordin.

Ikertzaile nagusiaren (IN) betebeharrak:

- Doktore titulua edukitzea.
- Irabazi asmorik ez duen erakunde publiko edo pribatu bati lotua egotea.

Bateraezintasunen araubidea:

- Laguntza hau AECC Zientzia Fundazioak emandako beste edozein laguntza jasotzearekin bateraezina da, baldin eta "Ideas AECC" ("Ideas Semilla" modalitatea) Laguntza edo deialdirako aurkeztutako unean indarrean dagoen AECC elkartearen Probintzia Batzordeek ematen duten bat ez bada.
- Aurreko deialdietan laguntza jaso duten pertsonak deialdi honetarako eskaera aurkeztu ahal izango dute, baldin eta jaso duten beste Laguntza hori amaitu denetik esku hartu nahi duten deialdi hau itxi arte urtebete igaro bada.
- Deialdi honetan proposamen bakarra aurkeztu ahal izango da. Hautagaitza aurreragoko deialdietarako ere aurkeztu ahal izango da, badin eta aurkeztutako proiektuan eta/edo ikertaldean aldaketak egin badira.

Proiektuari egozteko moduko gastuak: "Proiektuari egozteko moduko gastuak" dokumentua kontsultatu.

Eskabideak aurkezteko epea:

2017ko urtarrilaren 17a, 15:00etan

2017ko urtarrilaren 9a (hau barne)	I. Eranskina bidaltzea proposatutako pertsonalaren zerrendarekin. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.es helbidera igorri beharko da, mezuaren gaian honakoa adieraziz: "LAB AECC".
2017ko urtarrilaren 12a (hau barne):	Proiektuaren memoria beteta bidaltzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emaitzak hedatzeko eta jakinarazteko planaren c) atala bete dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.es helbidera igorri beharko da, mezuaren gaian honakoa adieraziz: "LAB AECC".

2017ko urtarrilaren 17a

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.

Eskabideak aurkezteko modua:

Eskabideak AECC Zientzia Fundazioaren web plataformaren bidez (<https://fundacioncientifica.aecc.es/login>) aurkeztu beharko dira

AECC Zientzia Fundazioko bitartekoa harremanetarako:

Tel.: 91 310 82 54

Helbide elektronikoa: fundacion.cientifica@aecc.es

UPV/EHUko bitartekoa harremanetarako:

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000839>